


# LAN DOKUMENTUA

Programazio  
didaktikoen  
elaborazioa



Garapen kurrikularra  
taldea  
Berritzegune Nagusia



## PROGRAMAZIOA IDAZTEKO ORIENTABIDEAK

Lan honetan programazioa garatzeko orientabide orokorrak aurkezten dira. Adibideak ikasturte eta arlo bateko ebaluazio batera mugatzen dira, Euskara eta Euskal literatura DBH2ra, hain zuzen.

### 1. HELBURUAK

#### EZAUGARRIAK

- ✓ Helburuak [Curriculumeko](#) arlo eta ikasgaien helburu orokorren zehaztapenak dira; beraz, curriculumeko helburuak egokitu egin behar dira zikloz ziklo Lehen Hezkuntzan, eta mailaz maila Bigarren Hezkuntzan.
- ✓ Helburuak ez dira unitate didaktikoen helburu didaktikoak.
- ✓ Ikasturte batean curriculumeko helburu orokor guztiak ez garatzea gerta liteke; horiek guztiak etapan zehar jorratuko baitira.
- ✓ Helburuak konpetentzia gisa idatzi behar dira, hau da, ZER?, NOLA?, ZERTARAKO? galderen erantzunak jaso behar dituzte.
- ✓ Helburuak, bestalde, ikastetxearen ezaugarri zehatzak kontuan harturik idatzi behar dira.
- ✓ Oinarrizko Gaitasunak islatu behar dituzte.

#### HELBURUAK IDAZTEKO ETA ZEHAZTEKO URRATSAK

1. Abiapuntutzat hartu [Curriculumeko](#) helburu orokorrak, ikasgaiari dagozkionak.
2. Horiek graduatu/zehaztu egin behar dira ikasmailaren arabera.
3. Helburuak zehazteko, kontuan har daitezke ikasturteari dagozkion ebaluazio-irizpideak, zikloz ziko eta ikasmailaz ikasmila sekuentziaturik baitaude.  
Ebaluazio irizpideek honakoak zehazten lagunduko digute:
  - a. Zer irakatsiko den ikasmila horretan.
  - b. Nola garatuko den irakaskuntza.
4. Helburuetan, halaber, zertarakoa adierazi behar da.
5. Berrikusi eta ziurtatu ikasmilen edota zikloen arteko progresioa dagoela. Kontuan izan progresio-irizpideak anitzak izan daitezkeela ikasgaien eta arloen arabera.
6. Programazioko helburuak idatzitakoan, egiaztatu Oinarrizko Gaitasunen presentzia.

EREDUA

ZER, NOLA, ZERTARAKO

IKASGAIAREN HELBURU OROKORRAK	DBH 2 MAILAKO HELBURIURAK
<p>1. Hizkuntza erabiltzeko era askotako eremuetatik jasotako diskurtso idatziak eta ahozkoak ulertzea eta ikuspegi kritikoz interpretatzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.</p>	<p><b>Bizitza akademikoari eta ikasle-interesetatik hurbil dauden gaiak lantzen dituzten komunikabideei buruzko</b> ahozko testuak zein testu idatziak ulertzea (aurkezpenak, argibideak, arrazoiketa errazak, narrazioak); eta informazio zehatzak identifikatzea, <b>aurrez emandako argibideak jarraituz, horietan ulertutakoa bizitza akademikoan, pertsonalean eta sozialean sortutako beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.</b></p>
<p>4. <b>Soziolinguistikako oinarritzko ezagutzak kontuan hartuz,</b> eleaniztasunaren eta kultura-aniztasunaren dibertsitatea ezagutzea eta interpretatzea, <b>hizkuntza-aniztasuna lortzeko bide positibo gisa; dibertsitate hori kultura-aberastasun gisa balioetsiko da</b></p>	<p>4. <b>Ikerketa zuzenaren bidez testuinguru hurbilaren</b> eleaniztasunaren eta kultura-aniztasunaren dibertsitatea ezagutzea eta interpretatzea, <b>hizkuntza-aniztasuna lortzeko bide positibo gisa; dibertsitate hori kultura-aberastasun gisa balioetsiko eta bakoitzaren identitate eleanitza onartzeko.</b></p>

Ezabatu

Zehaztapena

Zehaztapena

Zehaztapena

Zehaztapena

Zehaztapena

## 2. EDUKIAK

### EZAUGARRIAK

- ✓ Edukiak dira ikasgairen helburuak garatzeko behar diren prozedurak, jarrerak eta kontzeptuak. Bitartekoak dira.
- ✓ Programazioa unitate didaktikoen, sekuentzien, proiektuen arabera antolatzen da; Curriculumeko eduki blokeek ez dute normalean programazioa antolatzen.
- ✓ Unitate didaktikoen, sekuentzien, proiektuen denboralizazioa aipatu behar da.
- ✓ Unitate didaktikoen, sekuentzien, proiektuen curriculumeko bloke desberdinetako edukiak biltzen dituzte.
- ✓ Ikasturte osorako edukien hautaketak Oinarrizko Gaitasunen garapena bermatu behar du.
- ✓ Irakaskuntza aktiboaren ikuspuntutik, edukiak aukeratzean, prozedurazkoak eta jarrerazkoak bultzatu/sustatu behar dira.
- ✓ Edukien hautaketak koherentea izan behar du ikasgaiaren ikuspegiarekin.
- ✓ Ikaskuntzaren progresioa bermatzeko ezinbestean jorratu behar diren edukiak identifikatu behar dira.
- ✓ Identifikatu egin behar dira, halaber, ikaskuntza zabaltzeko, indartzeko edo egokitzeak aukera ematen duten prozedurazko, jarrerazko eta kontzeptuzko edukiak

### EDUKIAK IDAZTEKO

1. Curriculum eta ikasgelan erabiliko den material didaktikoa kontuan hartu (testuliburuak, proiektuak, irakasleek egindako materialak, material osagarria...).
- 2 Lan-proiektu, sekuentzia didaktiko edo unitate bakoitzean:
  - a. Aztertu material didaktikoak proposatzen dituen edukiak.
  - b. Erlazionatu Curriculumeko eduki blokeekin.
  - c. Edukiak aukeratu eta ikasmailara egokitu. Gero, ezinbesteko edukiak markatu.
3. Aukeratutako edukiak berraztertu eta egiaztatu:
  - a. Proposamenaren koherentzia
  - b. Prozedurazko eta jarrerazko edukien presentzia.
  - c. Oinarrizko Gaitasunak garatzeko edukien presentzia

## EREDUA

Kazetaritza lanbide. Narrazio Testua. DBH 3

### 5. Eduki-multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala

Curriculumeko eduki bloke bateko edukien egokitzapena.

Curriculumeko edukiak	Egokitzapena
<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Hizkuntzak pertsonen arteko harremanak egiteko bitartekotzat eta komunitate baten identitate-seinaleztat hartzea.</li> <li>➤ Ikasgelan, ikastetxean eta inguruan hitz egiten diren hainbat hizkuntzatan sortutako testuak irakurtzea eta entzutea, egungo euskal gizartearen eleaniztasun-egoera konplexuaz jabetzeko.</li> <li>➤ Ereduetan oinarrituz, azterketa bateratuak eginez eta testuak entzunez, euskarak historian izan duen bilakaera eta dituen aldaerak (euskalkiak) ezagutzea; horrela, beste edozein kasutan bezala, bizirik dagoen eta etengabe aldatzen ari den hizkuntzat hartuko da. Horrez gainera, ikasleak ohartuko dira hizkuntzaren ikuspegitik aldaera guztiek balio bera dutela; hau da, ez dagoela besteak baino hobe den aldaerarik.</li> <li>➤ Ahozko eta idatzizko testuetan, euskalkiak eta gaztelaniako dialektoak nahiz horiek dituzten funtzioak ezagutzea.</li> <li>➤ Bakoitzaren euskalkia aintzat hartzea eta erabiltzea, era askotako erregistroaren adibide gisa.</li> <li>➤ Hizkuntza estandarrak (euskara batua) hizkuntza-aldaera desberdina duten hiztunen arteko komunikazio-tresnatzat duen funtzioa ezagutzea.</li> <li>➤ Gaztelaniak eta bere geografia-aldaerek izan duten bilakaera ezagutzea, testuak norbaiten laguntzaz irakurri eta entzunez: Andaluziako gaztelania,</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Hizkuntzak pertsonen arteko harremanetarako bitarteko eta komunitate baten identitate-seinale gisa balioestea.</li> <li>➤ Ikasgelan, ikastetxean eta inguruan hitz egiten diren hainbat hizkuntzatan sortutako testuak irakurtzea eta entzutea, egungo euskal gizartearen ezaugarri den eleaniztasun-egoera konplexuaz jabetzeko.</li> <li>➤ <b>Ereduetan oinarrituz, azterketa bateratuak eginez, euskarak historian izan duen bilakaera eta dituen barietateak ezagutzea.</b></li> <li>➤ <b>Bakoitzaren euskalkia baloratzea eta erabiltzea, era askotako erregistroaren adibide gisa.</b></li> <li>➤ <b>Hizkuntza estandarrak (euskara batua) hizkuntza-barietate desberdina duten hiztunen arteko komunikazio-tresnatzat duen funtzioa ezagutzea.</b></li> <li>➤ <b>Gaztelaniaren eta euskararen arteko ukipena dela-eta, hizkuntza erabiltzean sortzen diren kalko okerrak identifikatzea eta zuzentzea; horretarako, euskararen hitz eta adierazpen propioak ezagutu eta erabiliko dira.</b></li> </ul>

Ezinbesteko edukiak

entzunez, euskarak zuzentzea.

<p>Extremadurakoa, Kanarietakoa, Amerikakoa...</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Soziolinguistikaren oinarriko kontzeptuen esanahia interpretatzea, horiei erreferentzia egiten dieten testuen azterketan oinarrituz.</li> <li>➤ Hizkuntzen arteko ukipen-egoeren ondorioz sortzen diren oinarriko fenomenoak ezagutzea, bai eta hizkuntzei eta horien hiztunei erreferentzia egiten dieten oinarriko kontzeptuak ere (eleanitza, elebakarra, elebiduna...); horretarako, hizkuntza bakoitzak inguruan duen garrantziari behatu eta gai horiei buruzko ahozko testuak eta testu idatziak aztertuko dira, ereduetan oinarrituz.</li> <li>➤ Gaztelaniaren eta euskararen arteko ukipena dela-eta, hizkuntza erabiltzean sortzen diren kalko okerrak antzematea eta zuzentzea; horretarako, euskarak berezkoak dituen hitz eta adierazpenak ezagutu eta erabiliko dira.</li> <li>➤ Barneratutako ezagutzak erabiliz, ikastetxeko eta inguruko egoera soziolinguistikoa hautematea. Hizkuntzak garatzeko, sustatzeko eta normalizatzeko erakundeak ezagutzea.</li> <li>➤ Hizkuntza desberdinen aldeko jarrera positiboak garatzea, eta, bereziki, euskararen berreskurapen-prozesuaren aldekoa. Horretarako, euskara erabiltzeko lotura afektibo positiboak sustatuko dira.</li> </ul>	
---	--

### 3. METODOLOGIA

#### EZAUGARRIAK

Atal honek irakaskuntzaren inguruko erabakiak biltzen ditu. Metodologiak koherentea izan behar du curriculumaren sarreran bildutako printzipio didaktikoekin.

Metodologiak oinarrizko gaitasunaren garapena zein irakaskuntza aktiboa bultzatu behar ditu eta irakaskuntza transmisiboa eta apendizai mekanikoa murriztu.

Irakasle taldeak estrategia metodologiko egokiak aukeratu behar ditu.

Aldagai metodologikoen ikastetxearen errealitatea zein ikasleen aniztasuna islatu behar dituzte eta horien arabera aukeratu behar dira.

Metodologiari lotutako erabakiek honako aldagaiak biltzen dituzte:

- Ikaslearen eta irakaslearen egitekoak
- Edukiak antolatzeko irizpideak
- Jarduera motak
- Ikasleen taldekatzea
- Ebaluazio kontzeptua eta printzipioak.
- Erabiliko diren baliabideak
- Lekua eta denboraren antolakuntza

#### METODOLOGIA ATALA IDAZTEKO

Aldagai metodologiak banan-banan errebisatu behar dira, erabaki orokorrak zehazteko:

- Ikasleen eta irakaslearen egitekoa: ikasgelan ikasleen autonomia, ikaskuntza aktiboa, lankidetzeta eta ikasten ikasteko estrategiak bultzatzen dituzten irizpideak azaldu behar dira, eta islatu behar da halaber, irakaslearen zereginari irizpide horiek nola eragiten dioten.
- Edukiak: Edukien antolamendua zehaztu behar dira (proiektuak, sekuentzia didaktikoak, proiektu globalak, ikasgaien arteko proiektuak, tailerra...)
- Jarduerak: ohiko jarduera motak adierazi: sekuentziaren faseekin lotutakoak (egitekoaren errepresentazioa, motibazio jarduerak, planifikazio jarduerak, gauzatze eta aplikazio jarduerak) zein inplikaturako prozedurekin erlazionaturakoak (sailkapena, informazio bilketa, laburpena...)




- Ikasleen taldekatzea: lan-taldeak antolatzeko irizpide orokorrak adierazi.
- Ebaluazio kontzeptua eta printzipioak: ebaluazio kontzeptuari buruzko ideia orokorrak zehaztu.
- Baliabideak: Ataza desberdinak garatzeko baliabideak adierazi, beti ere aniztasunaren irizpideak kontuan harturik (iturriak, euskarriak, xedeak...)
- Lekua eta denboraren antolamendua: ikasgela eta ikastetxe barruko zein kanpoko beste lekuak erabiltzeko irizpideak eta denboraren banaketari buruzko irizpideak (lan-saioen kopurua eta iraupena...) zehaztu.

Aldagai metodologikoak zehaztuta egiaztatu behar da ea ikasle guztien parte-hartzea eta arrakasta ziurtatuko dituzten neurri zehatzak atal guztietan islatzen diren.

Atal hau idazteko eta curriculumeko printzipio pedagogikoekiko koherentzia ziurtatzeko, komenigarria da honako dokumentuak kontuan izatea:

- Dagokion etaparen [Curriculum dekretua](#)
- Oinarrizko gaitasunen [Dokumentu markoa](#)
- Arloak eta ikasgaiak lantzeko: [Orientabide didaktikoak](#)

## EREDUA



<p><b>Curriculum dekretuaren sarrera.</b></p> <p><b>Hizkuntzak</b></p> <p><i>Hartara, behar-beharrezkoa da, alde batetik, ikasleentzat esanguratsuak diren eta helburu zehatza duten komunikazio-proiektuak proposatzea, ikaskuntza-prozesua gauzatzeko.. ikaskuntza helburu komunikatibo zehatz bat lortzera bideratutako sekuentzia didaktikoen bidez egituratzen da. Sekuentzietan, jakite hutsa baino garrantzitsuagoa da egiten jakitea</i></p>	<p><b>Jarduerak</b></p> <p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);">Askotariko jarduerak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Jarduerak Komunikazio-proiektuetan txertatzen dira. Proiektuak dira jardueren ardatza.</li> <li>○ Jardueren zailtasuna atazaren arabera eta ikasleen arabera izango da, eta hautatutako edukiak eskuratzea izango da haien helburu nagusia,</li> <li>○ Proiektuek motibazio jardura bat dute beti abiapuntu. Hartan proiektuan jorratuko den gaia eta azken helburua zehaztuko dira, beti ere komunikazio egoera baten baitan. Hala, taldekatzeak, epitekoak zehaztu eta negoziatu egingo dira ikasleekin atal honetan</li> <li>○ Planifikazioan, ikasleek ekoitziko duten testu-generoari lotutako gogoeta jarduerak txertatuko dira (ereduak aztertu, azken ekoizpena lortzera bideratutako jarduerak, komunikazio jarduerak...)</li> <li>○ Analisi eta berrikuspen jarduerak proposatuko dira.</li> <li>○ Proiektuetan azken ekoizpena jakinarazi, ezagutaraziko da eta azken emaitza ebaluatu egingo da.</li> <li>○ Hizkuntzari buruzko hausnarketa lantze aldera, jardura osagarriak proposatuko dira bai eta norberaren edo taldearen bitarteko ekoizpenak berrikusteko eta egokitzeko jarduerak ere, hala behar denean.</li> <li>○ Proiektuek berez dituzten ezaugarriek ahalbidetu egiten dute azken ekoizpenen aniztasuna.</li> <li>○ Jardura batzuk ebaluazio jardura gisa erabiliko dira.</li> </ul>
--	--

Eredu metodologikoa

Aniztasun ari arreta

Egitekoaren funtzionaltasuna

Egiten jakin

Aniztasunari erantzutea

## 4. EBALUAZIOA

### EZAUGARRIAK

Atal honek ikaslearen ikaskuntzaren ebaluazioaren inguruko erabaki sistematikoak eta etengabeak biltzen ditu, bai eta ikasteko eta irakasteko prozesuei buruzkoak ere. Ebaluazioa hauxe da:

- Ikas-irakaskuntza prozesuak hobetzeko ezinbesteko tresna. Ikasleen emaitzak neurtzeaz gain, honakoak baldintzatzen ditu: , nola ikasten den, zer ikasten den, zer irakasten den eta nola irakasten den.
- Informazioa biltzeko prozesu sistematikoa eta etengabea, ikasteko eta irakasteko prozesuen askotariko alderdiei buruzko erabakiak hartzeko balio duena.
- Irakasle, ikasle eta familientzako informazio iturri esanguratsua ikas-irakaskuntza prozesuen inguruan, prozesu horiek ikasleen benetako beharrei egokitzeko balio duena.
- Helburuen lorpen maila balioesten du , ebaluazio-irizpideen bidez.
- Atal honek gutxienez honakoak bildu behar ditu:
  - Ebaluazio- irizpideak
  - Ebaluazio-tresnak
  - Kalifikazioari buruzko erabakiak
  - Ebaluazioaren ondorioak

### EBALUAZIO ATALA IDAZTEKO ETA ZEHAZTEKO URRATSAK

#### Ebaluazio-irizpideak idazteko urratsak

Ebaluazio-irizpideak helburuen lorpen maila baloratzeko tresnak dira. Oinarrizko gaitasunak garatzen laguntzeko arloak edo ikasgaiak egindako ekarpenak aztertzeko aukera ematen dute. Ebaluazio-adierazleek zehazten dituzten jokabide neurgarrien bidez zehazten dira. Ebaluazio-irizpideak idazteko kontuan hartu behar da honako prozedura:

- Curriculumak ziklo edo mailetarako zehazten dituen ebaluazio-irizpideetatik abiatu.

- Kontuan izan eduki blokeekin barik arloaren edo ikasgaiaren helburuekin lotuta daudela.
- Ebaluazio- adierazle esanguratsuenak aukeratu helburuak zein landutako edukiak kontuan izanik.
- Egiaztatu ebaluazio-adierazleek oinarrizko gaitasunak jasotzen dituztela.
- Ikasten jarraitzeko / ikaskuntzan aurrera egiteko ezinbestekoak diren ebaluazio-adierazleak identifikatu.
- Txertatu ikasleen aniztasuna (gaitasunak, interesak, ikasteko erak...) kontuan dituzten ebaluazio-adierazleak

## EREDUA

Curriculum	Programazioa
<p><b>9. Oinarrizko ezagutza soziolinguistikoak erabiliz, hizkuntza-errealitateen aniztasunaz kontzientziatzea.</b></p> <p>9.1. Ea deskribatzen duen ikastetxeko eta inguruko egoera soziolinguistikoa, soziolinguistikako oinarrizko kontzeptuak aplikatuz, eta, halaber, egoerarekiko errespetua agertzeaz gainera, ea bazterten dituen hizkuntzekiko eta hiztunekiko aurreiritziak.</p> <p>9.2. Ea inguruan dagoen eleaniztasunarekiko eta kultura-aniztasunarekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa ageri duen.</p> <p>9.3. Ea ezagutzen dituen ikasgelan hitz egiten diren hizkuntzen arteko maileguak.</p> <p>9.4. Ea ezagutzen dituen hizkuntza baten egoera zehazten duten oinarrizko zenbait faktore, bai eta hizkuntzen arteko ukipen-egoeren ondorioz sortutakoak ere..</p>	<p><b>9. Oinarrizko ezagutza soziolinguistikoak erabiliz, ikaslearen inguruko (etxea, auzunea ikastetxea...) hizkuntza-errealitateen aniztasunaz kontzientziatzea.</b></p> <p>9.1. Ea deskribatzen duen ikastetxeko eta inguruko egoera soziolinguistikoa, soziolinguistikako oinarrizko kontzeptuak aplikatuz, eta, halaber, egoerarekiko errespetua agertzeaz gainera, ea bazterten dituen hizkuntzekiko eta hiztunekiko aurreiritziak.</p> <p>9.2. Ea inguruan dagoen eleaniztasunarekiko eta kultura-aniztasunarekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa ageri duen.</p> <div data-bbox="901 1758 1369 1937" style="border: 1px solid black; border-radius: 15px; padding: 10px; margin-top: 20px;"> <p>Hautatutako helburu eta edukien arabera adierazlerik egokienak aukeratu</p> </div>

## EBALUAZIO- TRESNAK

Ebaluazio-tresnak (galdetegiak, portafolioa, behaketarako eskemak, ikasleen ahozko zein idatzizko ekoizpenak...) ikas-irakaskuntza prozesuei buruzko informazio esanguratsua biltzeko erabiltzen dira. Trena horiek zehazteko honakoak izan behar dira kontuan:

- Ebaluazio-tresnen kalitatea eta aniztasuna ebaluazioaren objektuen arabera eta ikasleen aniztasunaren arabera (interesak, gaitasunak, ikasteko erak...)
- Ebaluazio-tresnak eta zehaztutako ebaluaziorako irizpide eta adierazleen arteko harremanak.
- Ebaluazio-tresnen kalitatea eta aniztasuna ebaluatzailearen arabera (irakasleak, ikasleak, ikasleen taldeak...)
- Ebaluazio-tresna bakoitzaren xedea eta erabilera uneak.

## EREDUA

Unitate edo sekuentzietan askotariko tresnak erabiliko dira ikasleen ebaluazio hezitzailea egiteko eta ikasleen apendizaiak hobetzen laguntzeko.

Tresna horiek aukera eman behar dute ikasleak auto-ebaluazioa egin eta hala, auto-erregulatu laguntzeko. Horrez gain, ko-ebaluazioa eta ikasleen arteko interakzioa eta adostasuna bultzatu behar dituzte.

Honako tresnak erabil daitezke ikasleen prozesuaren ebaluazioa egiteko:

- kontrol-orriak
- Zirriborroak berrikusteko orriak
- Autoebaluazio- orriak
- Koebaluazio-orriak

Ebaluazioan honako tresnak eta baliabideak erabiliko dira kalifikazioa zehazteko:

- Ikaslearen lan koadernoak
- Irakurliburuen gaineko jarduerak
- Ahozko eta idatzizko testuen ekoizpenak; horiek guztiak ikasleen portafolioan bilduko dira horien gaineko gogoeta pertsonalarekin batera.
- Unitate didaktikoarekin batera egin daitezkeen testak...

Ebaluazio bakoitzean horrez gain, honakoa proposatzen da:

- Bi unitate didaktikoren inguruko azterketa/kontrola.

## KALIFIKAZIOARI BURUZKO ERABAKIAK IDAZTEKO

Kalifikazioa ebaluazio prozesutik ondorioztatzen den erabakia da. Indarrean dagoen araudiak zehaztutako balorazio eskalaren arabera adierazpen kodifikatua da. Kalifikazioa zehazterakoan honakoak hartu behar dira kontuan programazioan:

- Indarrean dagoen araudia.
- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan zein Curriculum Proiektuan bildutako ebaluazioari buruzko erabakiak.
- Ebaluazio-tresna bakoitzari aurrez emandako balioa.

## EREDUA

Ebaluazioz ebaluazio eta azken ebaluazioa ere kalifikazioa honako portzentajeen arabera emango da:

- Ikaslearen lan koadernoak: %15
- Irakurriko dituzten liburuen gaineko jarduerak: %20
- Ahozko eta idatzizko testuen ekoizpenak; horiek guztiak ikasleen portafolioan bilduko dira horien gaineko gogoeta pertsonalarekin batera %40
- Unitate didaktikoarekin batera egin daitezkeen azterketak/ testak...%20
- Behaketa orrietan islatutako gelako lana %20

## EBALUAZIO PROZESUTIK ONDORIOZTATZEN DIREN ERABAKIAK IDAZTEKO

Ebaluazioaren ondorioz, hainbat erabaki hartu behar dira ikaskuntza zein irakaskuntza prozesuak egokitzeko. Erabakien eraginez programazioa alda daitezke (metodologia, irakas praktika, planifikazioa...) eta ikasleen aniztasunari erantzunak eman (errefortzuak, egokitzapenak edo curriculumak aberasteko neurriak, programa espezifikoetan parte hartzeko erabakiak...).

Erabaki horiek adosteko honakoak hartu behar dira kontuan:

- Indarrean dagoen araudia.
- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan zein Curriculum Proiektuan bildutako erabakiak.

Ikas-irakaskuntza prozesuei dagokienez, honakoak zehaztu behar dira:

- Programazioaren beraren berrikusketa eta atalen egokitzapena egiteko uneak.
- Horretarako behar diren tresnak.

Ikaskuntzari dagokionez, honakoak zehaztu behar dira:

- Arlo edo ikasgaien errefortzu planak.
- Helburuak lortzen ez direnean, beharrezkoak diren errefortzu zein curriculum egokitzapen neurriak ; beti ere identifikatu diren beharrezkoen arabera.
- Helburuak luze-zabal gainditzen direnean, curriculumak aberasteko beharrezkoak diren neurriak, identifikatutako beharrezkoen arabera.

## EREDUA

### Errefortzu baliabideak eta tresnak

- Zailtasun maila askotariko irakurliburuak aukeratu eta bilduko dira, eta hala behar balitz ,*Irakurketa Erraza* ekimenaren irizpideen arabera egokitutakoak ere proposatuko dira.
- Proiektuetan zehaztutako azken ekoizpenak barik beste aukera errazago/sinpleago batzuk proposatuko dira; ikasmailari dagozkion ebaluazio-adierazleak lortzea ahalbidetzen dutenak (baliabide grafiko gehiago erabil daitezke ahozko eta idatzizko ekoizpenetan, material osagarri gisa...)
- Informazioa biltzeko eta hautatzeko jardueretan, esaterako, testuen euskarri gehiago erabiltzea proposatuko da eta grafiko gehiago erabiltzea.
- Askotariko jarduerak bildutako dira hizkuntza zailtasunak dituzten ikasleei gai horien inguruko berriazko lanketa egin dezaten.
- Web gune eta orrialdeen bilduma egingo da ikasleek hizkuntza jarduerak burutu ditzaten eta horrela hizkuntza arazo zehatzak nork bereak konpondu eta bideratu ditzan.
- Hizkuntza tutorea rolak proposatu eta ezarriko dira ikasleen artean
- Familiei baliabideak eta orientabideak emango zaizkie seme-alabei laguntzeko testuak irakurtzen eta interpretatzen.